

**ERABAKIA, 2016ko IRAILAREN 7koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEko GERENTEARENA, HORREN BIDEZ I TALDEKO aplikazioen analista LANPOSTUA ZEREGINAK-ESLEITZEAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA EBAZTEKO DENA. LANPOSTU HORRETARAKO DEIA UPV/EHUko GERENTEARENA 2016ko UZTAILAREN 7ko ERABAKIAREN BIDEZ EGIN ZEN.**

Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2016ko uztailaren 7ko erabakiaren bidez aplikazioen analista lanpostua L 284 Unibertsitate honen I taldeko lan-kontratudun langileen artean zereginak-esleitzean aldi batez betetzeko deialdiã argitaratu zen.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, L 284, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZAko aplikazioen analista lanposturako ez da onartu izan den gurakorik aurkeztu, beraz, bete gabe geratu da.

Aurrekoa ikusita, Gerentziak, Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratudunen Plangintza Batzordearen 2013ko uztailaren 4ko Akordioa, 2013ko uztailaren 18ko Gobernu Kontseiluaren bileran berretsia, eta indarrean dagoen Lan Kontratuko Pertsonal Laboralaren Hitzarmenean ezarritakoarekin bat, zerbitzuaren premiak aintzat hartuta, eta errektorearen 2013ko urtarrilaren 26ko erabakiaz eman zaizkion eskumenak erabilita (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2013ko otsailaren 13ko EHAA).

#### HONAKOA ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.**- Zehazten den lanpostuaren prozedura amaitutzat jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea:

Izena: Aplikazioen analista  
Erref.: L 284  
Zenbatgarrena: 4  
Taldea: I  
Kategoria profesionala: IKTko goi mailako teknikaria  
Especialitatea: Aplikazioen Informatika  
Maila: 23  
Hizkuntza eskakizuna: 3;derrigortasun data:  
Langunea: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN  
GERENTEORDETZA  
Campusa: BIZKAIA

**BIGARRENA.**- Erabaki hau jakinaraztea, Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetzari, Har beza kontuan AZPkoen Atalak

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen kontra lan-auzibidera jo aurreko erreklamazioa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean hilabeteko epean. Hilabete igaro eta ebazpena jakinarazi ez badiote langileak ezetsizat jo dezake erreklamazioa. Erreklamazioari ezezkoa emanaz gero, edo ebazpenik jakinarazi gabe hilabete igaroz gero, epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, aurretiazko erreklamazioa ukatu dela jakinarazten den egunetik edo administrazio-isiltasunez ukatutzat jotzen den egunetik kontatuta. Hori guztia, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 125. artikuluan eta urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2016eko irailaren 7an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia  
(2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteché

